

"PLAZARIK PLAZA"

Xabier Olaskoaga Lasaren (t)xeetasunak

Elixabete Perez Gaztelu

1 971tik hona, lehen urtea dugu *Oarso* Xabier gabe kaleratzen dela. Arrotz egiten diogu Xabier gabeko *Oarsori* eta mira ere egingo diogu aldizkari hau eta etorriko direnak zabaldu eta Xabier ez dagoela konturatzean.

Bere heriotzaren lehen urteurrenean, lantxo hau egitera deliberatu naiz, utzi duen huts beteezinen aringarri, edo, gutxienez orogarrri. Eginbidea Xabierrengan aurkitu dut. Izan ere, Xabierrek egoki ikusi bazuen *Jautarkol* zena omentzeko olerkariak herriko bi aldizkaritan argitaratutako lanak aztertzea (1996: "Jauregi tar Koldobika «Jautarkol» (*Renteria* eta *Oarso* aldizkarietan lankide)"), zergatik ez egin nik antzeko zerbait Xabierrek aldizkari honetan kaleratuekin?

Xabierrek plazaratuak irakurri eta aztertzea begiz jo dut, hortaz, Xabier omentzeko, Xabierren langintzaren tamainaz ohartzeko, Xabierren izaeraz beraz ikasteko modua. Bestela esan, haxe da Xabier gure artean, bizitzaren plazan bizirik edukitzen laguntzeko dakardan aletxoa.

• "(Ama begira zazu) leihotik plazara"

Xabier plazarekin oso lotuta dago. Herriko plazari, enparantzari begira dagoen Santa Maria kaleko 2 zenbakiko etxean jaio eta bizi izan zen ia hil artean (1997 arte) eta plaza horren inguruan garatu zen Xabierren bizitza. Plaza (herri koxkor bateko plazak dituen eginkizun guztiak hartuta) izan du Xabier gizonak bizi eta ikastokia.

"Kontseju eta Eleiz aurreko / Enparantza nagusia / Beti izan zera gure errian / Lekueta berezia" ("*Oroipenak*", 1975); "Agur nere enparantza maite / aspaldi ezagutua. / Lenago zarra izandu arren / orain zaude berritua. / Beti-izan zera erriarentzat / ekintza askoko lekua". ("Nik ezagutu nuen "Plaza de la Constitución" 1928. urtean (Orain Herriko enparantza)", 1994).

Baina eliza nagusiak eta udaletxeak mugatzen duten enparantza horretaz gain, beste era bateko plaza batean ere ibilia da Xabier atzera eta, batik bat, aurrera. *Oarso* izan da Xabier plazagizonarentzat Errenteriako plazara, herritarren topa-gunea ere baden paperezko leku honetara, ateratzeko leihoa. Aldizkari honek aukera

eman dio leihotik begiratu eta plazan gertatu edo gertatzen zenari erreparatu eta atzera ere plazaratzeko.

• Xabier Olaskoaga Lasaren (t)xeetasunak

Xabierren lanetara hurbiltzen denak etengabe topo egiten du Xabierren (t)xeetasunekin. Hemen argitaratutako hamalau lanetan, gutxienez, hitz hori darabil bere lantegia zein izango den adierazteko.

Hona batzuk, adibide gisa: Miguel Irastorza maisuaz "argaitik **txeetasun** batzuek azalduko dizkizuet" (1982), Errenteriako bertsolari eta olerkari zaharrez: "**txeetasun** bearrean aurkitu nintzen" (1985), "Serapio Mujika eta Fausto Arocena'k egindako geigarritik artu eta euskeratutako **txeetasunak** dituzue" (1986), "Eguarri kanta sariketa degu eta beronetaz nai nuke nere idazlan onetan bere izaeraren **txeetasun** batzuek azaldu" (1987), "Berdin ere *Oarso* eta *Renteria* aldizkarietan bildu ditudan **xeetasun** batzuek" (1991), "Lantxo au osatzeko bear izan ditudan **xeetasun** geienak udaletxeko agiritegian arkitu al izan ditut" (1994), "Eta ona emen zeatz meatz bere bizitzaren **xeetasun** batzuek jakiteko nolakoa izandu zan gure Bixente" (2004)...

Bere lanen izenburuetan ere badarabil hitz hori: "«Maite opari»ren **xeetasun** batzuek" (1996), "Andoni Korta oroituaz (Bere omenaldiko **xeetasunak**)" (1997).

Bistan da *xehetasunak* ematea Xabierren langintzaren ezaugarria dela.

Hel diezaiozun orain Xabierrek gure eskuetan utzia begiratu, aztertu eta guk ere xehetasun batzuk plazaratzeari.

• Xabierren lanak zenbakitan¹

Denera, berrogeita bost lan plazaratu zituen urtekari honetan, hainbat modutara izenpetuta:

1. Zerrenda osatzeko ezinbestekoa da Errenteriako Udalak sarean dituen baliabideetara jotzea (www.errenteria.net). Eskerrak eman nahi dizkiet Juan Carlos Jiménez de Aberasturi eta Juan Miguel Lacunzari eman didaten laguntzagatik.

Olaskoaga bitan (1964, 1965), Jabier (1965), Jabier Olaskoaga (1990), Xabier Olaskoaga (1999, 2000, 2001, 2002, 2005), eta, gehienetan, Xabier (gainerrako hogeita hamaseitan).

1964koa da estreinako lana ("Madalen besperako salbia") eta 2006koa kalean ikusteko zoria izan zuen azkena ("Xabier Olaskoagaren lore sorta"), handik egun gutxitara (uztailaren 23an) hil baitzen Xabier, hainbeste maite zituen madalenetan, lagun zuen Pedrotxo Otegi (hau 22an) hil zen bezalaxe.

Oarso ez zen kalera atera honako urteetan: 1966 (*Magdalenas* izeneko beste aldizkari bat argitaratu zuten), 1977, 1978 eta 1979an. Bestetik, berriz, Xabierrek ere kale egin zuen 1967, 1968, 1969 eta 1970 urteetan. Baina, batzuk eta besteak alde batera utzita, 1971tik aurrera, urtero-urtero, hutsik egin gabe argitaratu zituen Xabierrek lanak; urte batzuetan bat baino gehiago, gainera:

bina lan 1985, 1986, 1988, 1990, 1996 eta 1997. urteetan eta 1998an, hiru (azken horietako bat, "Cuando una fotografía es ya nostalgia", erdaraz egin zuen bakarra).

Alegia, 35 urtetan 45 lanekin atera zen Xabier aldizkari honetako plazara. Kopuru hutsa aski adierazgarria da konturatzeko zenbateraino zeukan lotua Xabierrek bere bizitza aldizkari honenarekin.

-Lanak generoka

Xabierrek prosaz -hitz lauz- eta hitz neur-tuz ondu zituen lanak.

Bertso, olerki eta kantuetako hitzak (berak sortuak, nahiz erdaratik egokituak) hamar ditu, eta hogeita hamabost prosa lan. Azken hauen artean, bi itzulpen ere bai: J. Artetxeren lan bate-na (1974, "Donostiako iru damatxo") eta Gamon



Jesús Hospitaler

kronikagilearen lan sonatuari, S. Mujikak eta F. Arozenak erantsiarena (1986, "Errenderiko edesti kondairaren berri laburrak").

Prosa du Xabierrek "xehetasunak" plaza-
ratzeko bitartekoa, hala idazten ditu gertakariak,
errenteriar ospetsuen gorabeherak, oroigarri
eta oroitzapenak, ikerlanak eta horien gisakoak.
Arrazoian oinarritutako lanaren adierazpidea du
hitz laua.

Bihotza iturburu denean, berriz, hitz neur-
tuz bideratzen ditu barrengo esan beharrak:
hunkituta dagoenean, sentimenduak kanporatu
nahi dituen josten du bertso edo olerkietara,
nahigabeak (lagun-adiskideen heriotzak), nahiz
pozak edo omendu nahiak sorraraziak izan (bi
aipatzearen: estreinako lana, Maria Madalenaren
salbea (1964), eta, azkenekoen artean, On Jesus
Kerejetaren apaiz bizitzako urrezko ezteiak zirela
eta egina (2003), esate baterako).

Hala ere, prosazko lanetan ere, frankotan
(hogeita hamabostetik hamabitan), bertso edo
olerkiren batez burutzen du lana. Bertsoa du,
ezbairik gabe, Xabierrek "bere" adierazpidea.

• Lanak gaika

Gai nagusia –bakarra– ERRENTERIA da.
Sorterria da Xabierren lanak letren plazara lotzen
dituen zilbor-hestea.

Errenteriako eta errenteriarren makina bat
alderdiz ematen ditu xehetasunak: garai bateko
ohiturak, herriaren itxura, lantegiak, baserrien
izenak... baina, batez ere, euskal kulturaren adie-
razpidetzat dituen idazten du: kultura gizonak
(Errenderi Aba, Miguel Irastorza, Jautarkol...),
musika, txistua eta txistulariak, bertsoak, dantza,
sariak, jolasak eta kirolak, antzerkia...

Gaien arloan, atentzioa ematen du zenbat
lanetan diren tarteko jaiak: Eguberriak (1976,
1987), Madalenak (1964, 1965, 1975, 1980, 1988,
1993). Kultura eta alderdi ludikoa batuta aurkez-
ten ditu behin eta birritan.

Beste era bateko lanetara joz, nabarmentze-
koak dira hilberriak. Ia denak bertsoz eginak ditu:
Andoni Korta *Añarbe* (1972, 1997), Ignacio Montes
(1983), Boni Otegi eta Bittor Idiazabal (1985),
Pedrotxo Otegi eta Julio Gil (1990), Antontxu
Sainz (1997), Errapel Bereziartu (1998), Ramon
Mujika (1999), Bixente Barandiaran (2004).

Xabierrek erarik bereenean, hitz neurtuz,
jendaurrean esker ona adierazi eta agurtu nahi
izan zituen mundu honetan lagun-adiskide izan
zituena.

• Lanak Xabierren ispilu

Nor bere idazlanetan ispila daitekeen neu-
rrian islatzen da Xabier ere bereetan. Hona
dakartzagu arrasto (seguru) lodiegietan gure
begiek han eta hemen antzemandakoa.

Euskaltzalea. Euskara Xabierren bizitzaren
erdi-erdian zegoen eta euskaraz atera nahi izan
zuen letren plazara. Euskaraz idatzi zituen (bat ez
beste) lan guztiak. Gainera, oroi gaitezen eraba-
kia hartu zuenean euskaraz argitaratzea ez zela
batere arrunta.

Konparazio batera, 1964ko *Oarson* berro-
geita lau lanetatik hiru besterik ez ziren euskaraz:
Rikardo Arregi zenarena bata, Xabin Olaskoaga
(Xabierren anaia zenarena bigarrena), eta
Xabierrena hirugarrena. 1965ekoan ere hogeita
hamaikatik hiru ziren euskaraz: Rikardo Arregirena
(berriz ere) bata eta beste biak Xabierrenak.

Xabier ez zen euskara estandar edo batua-
ren idazteko modura egokitu, "lengo" eran
(1968ko Arantzazuko biltzarra baino lehen-
gokoan) idazten jarraitu nahiago izan zuen. Baina
aukera horrek eraman zuen bere lanetan beti iriz-
pide ortografiko berez ez jokatzera. Horrexek
dakarkio, seguruenik, gaurko euskal irakurleari
Xabierren lanei arrotz usaina edo zahar kutsua
harrapatzea.

Guztiarekin ere, puntu honetan ohartxo
bat egin nahi nuke. Mende luzetako euskararen
apologiagile ez gutxik euskarari buruz erdaraz
idazten zuten (eta dute). Xabierrek alde horreta-
tik oso gutxi du apologistetatik: ez du euskarari
buruz idazten, euskaraz idazten du. Hori bai, XX.
mende hasiera-erdialdetsuko garbizaleen ukitua
duen euskara molde batean.

Behar bada, Xabier zer eta zenbat euskaraz
esateak gehiago kezkatzen zuen nola esateak
baino.

Errenteriar "militantea". Errenteria du sorle-
ku, bizitegi eta izan du, nahi zuen bezala, betiko
atsedentoki. Herri honetakotzat du bere burua
eta herri honen alde ahalegintzen da leherre-
nak eta bi egiten, jaio zuen herriak merezim-
du osoz izen ona irabaz dezan. Agerian jarri nahi
du Mantxester txikiak izan duela eta baduela zer
erakutsia bai kanpokoei, bai gehienetan beren
gauzen berri ez duten herrikideei ere.

"Errenderiya beti izan da / Gizon azkarren
erriya. / Zamalbide, Gamon ta lagunak / Emen
zuten jatorriya. / Xenpelar eta olerkariyak / Jaio
ziraden kabiya. / Orain daukagu danen artean /
Mitxelena agurgarriya" (1965).

Berri-emailea. Xabierren lana herriko kronista edo berri-emailearena da askotan: herrian zer egiten zen, elkarteek (buruen-buruenik Ereintzak) zer egiten duten, zein ohitura zeuden eta dau-den, zein sari, zein omenaldi antolatu dituzten... jaso eta plazaratzen du.

Herri-gaien berri ematen du, bai, baina joera du aldizka berri horiek "janzteko". Esate bate-rako, musika lanaren izen soila eman beharrean, musikagilearena eta/edo hitzen egilearen "xehe-tasunak" ere ematen ditu.

Atzera egiten duenean ematen du bada-kiela aldatzen ari den gizarte eta herri baten lekukoa dela eta horren testigutza utzi nahi duela. Erreterriako berrien iturri emankorra da: oroimen handikoa eta xehetasun-bilduzalea izaki.

Ikertzailea. Bere oroimenaren putzuan murgilduta kanporatzen dituen jakingarrien ondoan, azterlanaren, paper artean ibili ondoko lanaren emaitzak ere utzi ditu. Xabierrek ez du bere burua ikertzailetzat: "Ni ez naiz ikertzaile", dio argitaratu zuen azken prosa-lanean (2005). Nik, ordea, baietz diot, ikertzaile izateko beharrezko ezaugarriak baititu: oroimen handikoa da, sekulako jakin-mina du eta xehetasunei erreparatu eta aintzat hartzen ditu, eta, gainera, ikerketarako (ikasteko) ezinbesteko dohaina du; apala da.

"Ni ez naiz ikertzaile bañan gogoz eta alde-tan ondoen egin ditut ikerketak jakinik akats ugari izango dituela; bañan asmo onenarekin egindako lana duzue eta zerbaitetako balio asmoz egiña". (2005).

Bere belaunaldiko gizon eta batez ere emakume ia denak bezala, Xabierrek ez zuen aukerarik izan goi mailako ikasketak egiteko, baina baliabide teoriko eta metodologikoen falta bere borondate neurrigabeaz eta lanaz ordaindu du. Ez da erraza neurtzen zenbat zor dion euskal kulturak -zenbat zor diegun oraingo euskal-dunok- halako jende eskuzabal eta borondate onekoari.

Arlo honetan aipagarriak iruditzen zaizkit ikerlanok: 1973ko "Erreterriko txistulariak urteak zear", 1985eko "Erreterri'ko bertsolari eta olerkari zaarrak", 1991ko "Ogeigarren mendean. Erreterriako dantza talde eta dantza maixuak", 1996ko "Jauregi tar Koldobika Jautarkol. (Renteria eta Oarso aldizkarietan lankide)", 2001eko "Presa garbiketa", 2005eko "Pekin Erreterrian". Guztiak jakingarriak, guz-tiak Erreterriako (batez ere XX. mendeko) historiaren osagaiak. Baina harrigarriena da, nire ustez, "Antzerkia Erreterrian" 2000. urteko lana,

Erreterriako antzerkiaren historia osoaren oinarri nahitaezkoa eta... Xabierrek 82 urte zituela egina!

Itxura guztien arabera, urteetan aurre-ra joan ahala Xabier ikerketari tamaina hartzen hasia zen, seguruenik ohartua zen bere mailan ikertzeko gauza bazela eta ikerketak fruituak ematen zituela ikusteak sortuko zion poza ere pizgarri gertatuko zitzaion.

"Plaza gizona", bultzatzailea, ekintzailea. Kalean hamaika saltsatan ikusten genuen Xabier hura bera ispilatzen zaigu aldizka bere lanetan. Ez du aukera galtzen lan egiteko gonbita egiteko, ez herriko seme ospetsuentzako omenaldiak eta antzekoak eskatzeko. Hortxe daude, buruen-buruenik, Erreterri Abaren lanak (1981) eta Jautarkolenak (1996) argitaratzeko Xabierren eskeak. Xabierrengatik izan ez balitz ez ziren plazaratutako. Erreterriako Udalak kaleratu zituen: 1999an Jautarkolen lan guztien bilduma, eta 2003an Erreterri abarena.

Bakezalea. Gerra garaian eta gerraren ondoren gorriak ikusi zituen gizon batek etengabe bakerako deia egitea ez da baztertzekoa. Bere lanetan askotan du bakea hizpidean; sakon-sakonean kezkatzen du herri honek bakean bizitzea lortu ez izana.

Ildo honetan, azpimarratzekoa da 1936ko gerrateaz ematen duen ikuspegia: ez du beste askok erabili izan duten aurkarien irudi errazera jo nahi izan, eta ez da makurtu berdintze topiko (gezurrezko)ra; alegia, "besteak = espainolak = kanpokoak = gaiztoak / gu = euskaldunak = hemengoak = onak". Berariaz dio gerra gure artekoa izan zela: "gure arteko guda amaitu ondoren..." (1987).

Fededuna. Sinesteduna agertzen da bere lanetan. Eliz eta erlijio giroko irudiez ziprizzintzen ditu lan asko: Maria Madalena, salbea, Zeruetako Ama, eliz nagusia, eliz bira edo prozesioa, meza, hil direnentzako otoitza eta Jainkoaren ondoan betiko atsedena hartzeko desioa... maiz ateratzen dira. Ez nuke, horratik, esango Xabierrentzat fedea agerian eramateko erakusgarria zenik; gehiago iruditzen zait berak barrenan eta bere golkorako bizi zuela.

Alaia: Ez dago jakiterik madalenen giroan jaio zelako ote den (1918.09.08), baina Xabier kalezalea, kantuzalea, festazalea ere bazen; ez zen etxe zuloan edo liburu artean kaleari bizkar emanez bizi direnetakoa. Madalena, Eguberriak, txapelketak, sariketak, dantza saioak, antzerkia... bizitzaren alderdi ludikoaz gozatzen ere bazekie-la erakutsi digu Erreterriako era askotako jaien gainean idatzitako lan frankotan.

Esker oneko ere agertzen da bere lanetan. Zenbat eta zenbat lanetan ez ote du lana hasi edo bukatzen halakori edo halakori eskerrak ematen? Santa Maria kaleko jaiotetxea utzi eta Xenpelar kalekora aldatu behar izan zuenean ere, orduko Errenteriako Udalaren ordezkarietzat esker-hitzak besterik ez zuen: "Bertatik alde egiteko jarri nuben baldintzak adostasun osoa izandu zuen bi alderdietatik eta alde ortatik oso pozik gelditu naiz ordaiñez jarri nauten etxearekin". (1998). Berak zeukana eta bestek egin edo ematen ziotena estimatzen eta aprobetxatzen zekien gizona zen.

Esker onekoa ez ezik, **zorioneko** izateko arrazoiak ere izan bide zituen. Ez zuen beti bizitza erraza izan, baina bizi izan zituen 88 urteak aski urte emankorrek gertatu zitzaizkion: Errenteriako euskal kulturaren ereindakoaren uzta ikusteko eta biltzeko egokiera ere izan zuen. Artean bizi zela gozatu ahal izan zuen herri-agintariek eta elkar-teek eskaini zizkioten omenaldiez.

• Plazarik plaza

Gainerakoak inondik ere gutxietsi gabe, bere gorazarretan egindako bat iruditzen zait orain eta hemen aipagarria: Errenteriako egungo plazarik bizienera Xabier Olaskoaga izena jarri zioten. Argitaratuta utzi ez badu ere, jakin badakit Xabierrentzat plaza berri hau bere betiko beste haren pareko bilakatu zela: ahal izan zuen bitartean, egunero-egunero joaten zitzaizkien bisitan batari eta besteari.

Herriko enparantzatik abiatu gara Xabier Olaskoagaren plazan bukatu dugun omen-bidea egiteko. Herriko plazatik atera eta aldiakariarena zabaldu zituen Xabierrek bere leihotik ikusten zituen *(t)xeetasunak*. Gu ere saiatu gara letren plazatxo honetara ekartzen gere begiek zuzen edo oker berezi dituzten Xabierrenak. Izan bitez gure xehetasunok gizon langile eta maitagarri haren oroigarri. Ez adiorik, Xabier.



Jesús Hospitaler

BIBLIOGRAFIA

- Oarso, 1964: "Madalen besperako salbia".
- Oarso, 1965: "Nere kalea".
- Oarso, 1965: "Madalen Jaiak".
- Magdalenas, 1966: "Gure baserriak".
- Oarso, 1971: "Zamalbide".
- Oarso, 1971: "Ezkil otsak (nere erriko kanpai zarrari).
- Oarso, 1972: "Añarbe (G.B.)".
- Oarso, 1973: "Errenderiko txistulariak urteak zear".
- Oarso, 1974: "Donostiako iru damatxo".
- Oarso, 1975: "Oroipenak".
- Oarso, 1976: "Magdalenaren Eleiz-bira edo prozesioa".
- Oarso, 1981: "Errenteria'tar Erramun Aba (olerkari eta lekaide)".
- Oarso, 1982: "Miguel Irastorza maixua".
- Oarso, 1983: "Zer du txistuak".
- Oarso, 1984: "Xenpelar sariak".
- Oarso, 1985: "Boni eta Bittor".
- Oarso, 1985: "Errenderiko bertsolari eta olerkari zaarrak".
- Oarso, 1986: "Errenderiko Madalen deunaren elizatzxoan".
- Oarso, 1987: "Eguarri kanta sariketa".
- Oarso, 1988: "Zatiak".
- Oarso, 1988: "1987.go Magdalen Goiza".
- Oarso, 1989: "Ereintzako txistulariak urteetan zear".
- Oarso, 1990: "Tolare berri ikastolako umetxoen abestaldea".
- Oarso, 1990: "Pedrotxo eta Julio".
- Oarso, 1991: "Ogeigarren mendean. Errenteriako dantza talde eta dantza maixuak".
- Oarso, 1992: "Abesti Itzak".
- Oarso, 1993: "1928.go Madalen jaietako berriak".
- Oarso, 1994: "Nik ezagutu nuen "Plaza de la Constitución" 1928. urtean".
- Oarso, 1995: "Errenteriako lantegiak urteetan zear".
- Oarso, 1996: "Jauregi tar Koldobika "Jautarkol"".
- Oarso, 1996: "Maite Opari"ren xeetasun batzuek".
- Oarso, 1997: "Antontxu oroituaz, enparantza berri bat".
- Oarso, 1997: "Andoni Korta oroituaz (Bere omenaldiko xeetasunak)".
- Oarso, 1998: "Santa María kaleko 2 zenbakiaren etxea".
- Oarso, 1998: "Cuando una fotografía es ya nostalgia".
- Oarso, 1998: "Errapel Bereziartu oroituaz".
- Oarso, 1999: "Ramon Mujika".
- Oarso, 2000: "Antzerkia errenterian".
- Oarso, 2001: "Presa garbiketa".
- Oarso, 2003: "On Jesu Kerejetari (Omenaldia)".
- Oarso, 2004: "Bixente Barandiarn (G.B.). Bertsolari eta idazle errikoia (1917-1-24 / 2003-10-1).
- Oarso, 2005: "Pekin Errenterian".
- Oarso, 2006: "Xabier Olaskoagaren lore sorta".